

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ASTIGARRAGAKO UDALA

Hirigintza

Iragarkia

Jakinarazten da, alkateak eskuordetuta, 2024ko abenduaren 19an egindako ohiko tokiko gobernu batzordean, aho batez, AJAko 206 artikuluaaren salbuespenarekin, besteak beste, honako erabaki hau hartu zela:

— Astigarragako herrian etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntzak ematea arautuko dituzten oinarriak eta deialdia.

Lehenena. Astigarragako herrian, 2024. urtean, etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntzak amatea arautuko dituzten oinarriak onartzea.

Bigarrena. Dirulaguntzaren deialdi publikoa egitea.

Oinarriak. Astigarragako herrian etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntzak ematea arautuko dituzten Oinarri erregulatzaileak (2024).

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

1. Laguntza hauen xedea eskaera egiten duten 18 eta 35 urte bitarteko astigarrarren ohiko bizilekua den etxebizitzaren alokairuaren zati bat ordaintzen laguntzea da, dagoeneko etxebizitza errentan hartuta badaukate eta horretara bideratuak dauden gainerako laguntzetarako (Gaztelagun, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria, Gizarte Larrialdietarako Laguntza...) eskubiderik ez badute.

Oinarri hauetan ezarritako baldintzen arabera tramitatu eta emango da dirulaguntza, eta onuradunak 2024. urteko hamabi hilabeteetan ordaindu beharreko alokairua ordaintzeko erabiliko da (2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitartekoak), baldintza horiek epealdi horretan zehar mantentzen baldin badira.

Eusko Jaurlaritzak onartuak dituen alokairu laguntzen deialdiek, hau da, Gaztelagun (Alokabide), DSBEn EPO laguntza (Lanbide), GLL edo Prestazio Subjektiboaren Eskabidea (Astigarragako Zerbitzu Sozialak), lehentasuna izango dute udal laguntza hauekiko. Hori horrela, eskatzaileak derrigorrez eta lehentasunez tramitatu izan beharko du Jaurlaritzaren laguntza, eta hura lortzen ez badu bakarrik izango du udal laguntza hauek jasotzeko eskubidea. Eusko Jaurlaritzaren laguntza derrigorrez tramitatu behar horrek salbuespen bat izango du, hain zuzen ere udal laguntzen kudeatzaileak objektiboki zehazten baldin badu eskatzaileak ez litzukela beteko, inolaz ere, Eusko Jaurlaritzaren laguntzen oinarriak.

2. artikulua. Aurrekontuko diru hornidura.

Deialdi honetan emango diren dirulaguntzen zenbatekoa gutxira 30.000 eurokoa izango da, eta hori 2024. urterako Astigarragako Udalaren Aurrekontu Orokorraren partida hauetatik egingo da: 1 0400.480.01.152.20 2024 (1655).

AYUNTAMIENTO DE ASTIGARRAGA

Urbanismo

Anuncio

Se notifica que en la Junta de Gobierno Local ordinaria celebrada el día 19 de diciembre de 2024, por delegación del Alcalde, se adoptó por unanimidad, con la excepción del artículo 206 del ROF, entre otros, el siguiente acuerdo:

— Bases y convocatoria de subvenciones para alquiler en el municipio de Astigarraga.

Primero. Aprobar las bases que han de regir la concesión de subvenciones para la adquisición de viviendas en régimen de alquiler en el municipio de Astigarraga durante el año 2024.

Segundo. Proceder a la convocatoria pública de la subvención.

Bases. Bases por las que se regula la concesión de ayudas para el alquiler de viviendas en el municipio de Astigarraga (2024).

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto.

1. El objeto de las presentes ayudas es ayudar a las personas astigarragatarras solicitantes, de entre 18 y 35 años de edad, a pagar el alquiler de su vivienda habitual, si ya se encuentran arrendando dicha vivienda y no tienen derecho a beneficiarse del resto de ayudas destinadas al efecto (Gaztelagun, Prestación Complementaria de Vivienda, Ayudas de Emergencia Social...).

Se tramitará y concederá las ayudas de conformidad con las condiciones definidas en las presentes bases. Se utilizará la ayuda para pagar el alquiler a abonar en los doce meses de 2024 (del 1 de enero al 31 de diciembre de 2024), siempre que se mantengan las condiciones durante dicho período.

Las convocatorias de ayudas al alquiler aprobadas por el Gobierno Vasco, es decir, Gaztelagun (Alokabide), ayuda PCV de la RGI (Lanbide), AES o la Solicitud de Prestación Subjetiva (Servicios Sociales de Astigarraga) tendrán prioridad sobre la presente ayuda municipal. Así, la persona solicitante deberá tramitar la ayuda del Gobierno ineludiblemente y de forma prioritaria, y solo tendrá derecho a percibir las presentes ayudas municipales si le ha sido denegada. Dicha obligatoriedad de tramitar la ayuda del Gobierno Vasco contará con una salvedad, concretamente que la persona/entidad gestora de las ayudas municipales estipule objetivamente que la persona solicitante no cumpliría, en modo alguno, las bases de las ayudas del Gobierno Vasco.

Artículo 2. Dotación presupuestaria.

La cuantía total destinada a las ayudas concedidas en la presente convocatoria será de 30.000 euros, proveniente de la siguiente partida de los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Astigarraga para el año 2024: 1 0400.480.01.152.20 2024 (1655).

3. artikulua. Interpretazioa eta araubidea.

Dirulaguntza emateko ardura duen organo berari dagokio oinarri hauen interpretazioaren harira sortzen den edozein zalantzari buruz erabakitzea.

Oinarri horietan ezarritakoaz gain, honako hauek arautuko dituzte dirulaguntzak:

- Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa.
- Dirulaguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa.
- Astigarragako Udalaren dirulaguntzak ematea arautzen duen udal Ordenantza 2023koa (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratua 2023-04-13).
- Astigarragako Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa 2024-2026 (egoitza elektronikoa argitaratua 2024ko martxoaren 7an).

4. artikulua. Publizitatea.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoaren arabera, deialdia eta oinarri arautzaileak eta haien babesean emandako dirulaguntzak udalaren web orrian www.astigarraga.eus/eu/dirulaguntzak, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta, Dirulaguntzen Datu-Base Nazionalean argitaratuko dira (<http://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/ge/eu/index>).

II. KAPITULUA

DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN JARDUERAK ETA ONURADUNAK

5. artikulua. Diruz lagun daitezkeen gastuak.

Diruz lagun daitezkeen gastuak: diruz lagunduko diren alokairu-gastuak deialdia 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartekoak izango dira.

Oinarri honetan jasotakoari jarraiki, alokairutik edo diruz lagun daitekeen kontzeptutik kanpo geldituko dira hasierako fidantza, garaje eta komunitate eta administrazioko gastuak, bai eta kontribuzio edo zerga kontzeptupean sor daitezkeenak ere, dago-kion kontratuan berariaz sartuta egonda ere.

Alokairuko hileko kuotatik 30 euroko balio finko bat kenduko da, aurreko paragrafoan deskribatutako garaje edo komunitate gastuengatik, alokairu kontratuan sartuta badaude eta ez bada horietako bakoitzaren hileko kostuaren berariazko justifikaziorik aurkezten.

6. artikulua. Dirulaguntzen gehienezko zenbatekoa eta diruz lagunduko diren gastuak.

1. Dirulaguntzaren zenbatekoa errentaren arabera finkatuko da: hileko errenta konputagarriaren portzentaje bat izango da, eskaera bakoitzeko hileko hainbat euroko gehienezko muga izango du, eta gehienez 12 hilabeterako emango da, diru-sarreraren arabera.

2. Dirulaguntzen gehienezko kopuruak hauek izango dira:

Diru sarrera garbiak eurotan (bizikidetzaren unitatearenak)	Gehienezko alokairu-gastuaren %
33.000,01 eta 39.000,00 bitartean	20
30.000,01 eta 33.000,00 bitartean	30
26.000,01 eta 30.000,00 bitartean	40
26.000,00 arte	50

3. Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa kuantifikatzeko, kontuan hartuko da oinarri hauetako 8. artikuluan ezarritakoa.

– Alokairu partekatua denean, bizikidetzaren unitate bakoitzari emateko laguntza kalkulatzeko, etxebizitza osoaren hileko errenta zatituko da kontratuko titularren kopuruaren artean.

Artículo 3. Interpretación y normativa.

Compete al órgano responsable de la concesión de las ayudas resolver cualquier discrepancia surgida con respecto a la interpretación de las presentes bases.

Además de lo dispuesto en las presentes bases, las disposiciones siguientes regularán también las ayudas:

- Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- Reglamento General de Subvenciones, aprobado por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.
- Ordenanza municipal del Ayuntamiento de Astigarraga para la concesión de subvenciones, de 2023 (publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el 13-04-2023).
- Plan estratégico de subvenciones del Ayuntamiento de Astigarraga 2024-2026 (publicado en sede electrónica el 7 de marzo de 2024).

Artículo 4. Publicidad.

De conformidad con lo dispuesto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publicarán la convocatoria y las bases reguladoras, así como las subvenciones concedidas a resultados de ambas en la página web del ayuntamiento www.astigarraga.eus/eu/dirulaguntzak, en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (<http://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/ge/eu/index>).

CAPÍTULO II

ACTIVIDADES SUBVENCIONABLES Y PERSONAS BENEFICIARIAS

Artículo 5. Gastos subvencionables.

Gastos subvencionables: los gastos de alquiler subvencionables serán aquellos que van del 1 de enero al 31 de diciembre de 2024.

En virtud de lo dispuesto en la presente base, quedarán fuera del alquiler o del concepto subvencionable la fianza inicial, los gastos de garaje, comunidad y administración así como los generados en concepto de contribución o impuesto, aunque estén incluidos expresamente en el contrato.

De la cuota de alquiler mensual se restará un valor fijo de 30 euros por los gastos de garaje o comunidad descritos en el párrafo anterior, si están incluidos en el contrato de alquiler y salvo presentación de justificación expresa del coste mensual de cada uno de ellos.

Artículo 6. Cuantía máxima de las ayudas y gastos subvencionados.

1. Se definirá la cuantía de las ayudas en función de la renta: Será un porcentaje de la renta mensual computable, tendrá un límite máximo de tantos euros al mes por solicitud y se concederá por un máximo de 12 meses, en función de los ingresos.

2. Las cuantías máximas de las ayudas serán las siguientes:

Ingresos netos en euros (de la unidad de convivencia)	% máximo del gasto de alquiler
Entre 33.000,01 y 39.000,00	20
Entre 30.000,01 y 33.000,00	30
Entre 26.000,01 y 30.000,00	40
Hasta 26.000,00	50

3. Para cuantificar la cuantía subvencionable, se considerará lo estipulado en el artículo 8 de las presentes bases.

– Cuando se comparta el alquiler, para calcular la ayuda a conceder a cada unidad de convivencia se dividirá la renta mensual de toda la vivienda por el número de personas titulares del contrato.

— Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoak ezingo du gaintitu hileko errentaren % 50a.

— Alokairu kontratu bakoitzari ematen zaion laguntzaren zenbatekoak ezingo du, inola ere, Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikorako (EPE) ezarri den gehieneko muga gaintitu, hau da, 300 euro hilean gehienez.

7. artikulua. Onuradunak.

— Pertsona fisikoek eskuratu ahaliko dute dirulaguntza, bakkarik nahiz bizikidetzak-unitate batean bilduta bizi, baldin eta 8. artikuluan jasotako baldintzak betetzen badituzte.

— Oinarri honen ondorioetarako, Bizikidetzak-unitateak osatzen dute etxebizitza edo bizileku berean elkarrekin bizi diren bi pertsonak edo gehiagok, baldin eta elkarren artean batuta badaude ezkontza bidez edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkor baten bidez, laugarren mailara arteko odol-ahaidetasunagatik edo bigarren mailara arteko ezkontza-ahaidetasunagatik, edo familia-harrerako harreman iraunkor batengatik edo adopzio aurreko edo tutoretzapeko harreman batengatik.

— Bizikidetzak-unitatea osatzen duten pertsona guztiek, seme-alaba adingabeek izan ezik, oinarri honetan eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte.

— Udalak bizikidetzak-unitate kasu edo suposizio berriak definitu ahal izango ditu gizarte-bilakaeraren arabera, eta bereziki, familia-egitura ereduaren bilakaeraren arabera. Horren harira, baloratuko da eskaera egileen eta beraiekin bizi direnen arteko mendeotasun ekonomikoa, betiere, unitate hartzailearen eta hartu dituzten pertsonen artean diru bidezko traturik ez badago.

— Alokairuko titular-kide diren pertsona fisikoek ere eskatu ahaliko dute dirulaguntza (alokairua partekatu arren bizikidetzak-unitate bat osatzen ez dutenak).

Kasu hauetan titular-kide bakoitzak bere eskaera propioa egin beharko du (dokumentazioa ere bakoitzak atxikituta).

8. artikulua. Onuradunek bete beharreko baldintzak.

1. Eskatzaileen adina.

2024ko abenduaren 31n 18 eta 35 urte bitarte izatea, alegia, 1989. eta 2006. urte bitartean —biak barne— jaio izana.

2. Errolda.

Dirulaguntzen onuradun diren bizikidetzak-unitateko pertsona guztiek dirulaguntza jasoko duen etxebizitzan erroldatuta egotea, dirulaguntza eskatzeko epea amaitu baino lehen.

Halaber, etxebizitzan kontratuaren titular ez den adin nagusiko pertsonarik erroldatuta balego, kontratuaren titularrek pertsona horiek erroldatik baja emateko eskaera egitea, eskaera aurkeztearekin batera.

Erroldak eta kontratuak bat etortzea adin nagusiko pertsonen kasuan (ikasten ari diren adin-nagusiko seme-alabak izan ezik, beti ere, ikasturteko matrikula aurkezten badute).

Diruz lagundutako errenta epea baino 6 hilabete lehenagotik Astigarragan erroldatua egotea. Diruz lagundutako urtearen barruan erroldatuz gero, lehen 6 hilabeteak ez dira diruz lagunduko.

3. Astigarragako udalerrian kokatutako etxebizitza libre baten errentamendu-kontratuaren titular izatea, norberaren izena edo errentakide gisa, eta hori izatea bizikidetzak-unitate eskatzailearen ohiko eta etengabeko etxebizitza. Errentamendu-kontratu sinatua izango dute errentakide guztiek banan-banan orri guztietan. Errenta-kontratuaren iraupenak, gutxienez, 12 hilabeteak izan beharko du.

4. Inolako familia-loturarik ez edukitzea etxebizitzaren errentatzailearekin edo haren bizikidetzak-unitateko kideren batekin, odolkidetasun edo ahaidetasunezko bigarren mailaraino.

— La cuantía máxima de las ayudas no podrá superar el 50 % de la renta mensual.

— La cuantía de la ayuda concedida a cada contrato de alquiler no podrá superar, en ningún caso, el límite máximo definido para la Prestación Económica de Vivienda (PEV); es decir, 300 euros al mes, como máximo.

Artículo 7. Personas beneficiarias.

— Podrán acceder a la ayuda las personas físicas que vivan solas o agrupadas en una unidad de convivencia, siempre que cumplan los requisitos definidos en el artículo 8.

— A los efectos de las presentes bases, constituyen unidad de convivencia dos personas o más que vivan en la misma vivienda o residencia, siempre que estén unidas por vínculo matrimonial o análogo al conyugal permanente, hasta cuarto grado de consanguinidad o hasta segundo grado de parentesco por afinidad, o por relación permanente de adopción o acogimiento familiar o preadoptivo.

— Todas las personas que conformen la unidad de convivencia, salvo hijos e hijas menores de edad, deberán cumplir las condiciones definidas en las presentes bases.

— El Ayuntamiento podrá definir nuevos casos o supuestos de unidad de convivencia de acuerdo con la evolución social y, fundamentalmente, de acuerdo con la evolución de la estructura familiar. En ese sentido, se valorará la dependencia económica entre las personas solicitantes y quienes vivan con ellas, siempre que no haya acuerdo pecuniario entre la unidad receptora y las personas que haya acogido.

— Las personas físicas cotitulares del alquiler también podrán solicitar las ayudas (personas que aunque comparten el alquiler no conforman unidad de convivencia alguna).

En esos casos, cada persona cotitular deberá realizar su propia solicitud (adjuntando también la documentación solicitada).

Artículo 8. Requisitos que deben cumplir las personas beneficiarias.

1. Edad de las personas solicitantes.

Tener entre 18 y 35 años a 31 de diciembre de 2024; es decir, haber nacido entre 1989 y 2006 (ambos incluidos).

2. Padrón.

Todas las personas de la unidad de convivencia beneficiaria de las ayudas deben estar empadronadas en la vivienda para la que se concederán las ayudas, antes de finar el plazo de solicitud de ayudas.

Asimismo, si hubiera empadronada en la vivienda cualquier persona adulta que no fuera titular del contrato, las personas titulares del contrato, al presentar la solicitud, deberán solicitar la baja del padrón de dicha persona.

Que padrón y contrato coincidan en lo concerniente a las personas adultas (excluidos hijos o hijas estudiantes mayores de edad, so presentación de la matrícula del curso).

Estar empadronadas en Astigarraga 6 meses antes del período de renta subvencionado. De empadronarse en el año en el que se entregarán las ayudas, los 6 primeros meses quedarán excluidos de dichas ayudas.

3. Ser titular, a título individual o como coarrendatario, del contrato de arrendamiento de una vivienda libre situada en el municipio de Astigarraga y que dicha vivienda sea la vivienda habitual y permanente de la persona solicitante. El contrato de arrendamiento deberá estar firmado por todas las personas coarrendatarias, en todas sus páginas. La duración del contrato de arrendamiento será de 12 meses, como mínimo.

4. Carecer de vínculos familiares con la persona arrendadora de la vivienda o con cualquier otro miembro de su unidad de convivencia, hasta segundo grado de consanguinidad o afinidad.

5. Errenta banku-transferentzia edo banku-agiri bidez ordaintzea.

6. Eskatzaileetako edo bizikidetzaren unitatea osatzen duten kideetako batek ere ez du izango bere jabetzako etxebizitzarik, salbu eta herentzia edo dohaintza bidez eskuratutako jabetza osoko etxebizitza baten titularkide denean, eta titularkidetasunportzentajea % 50etik gorakoa ez denean, partaidetzen balio katala 88.030,84 euro baino gehiagokoa ez bada (zenbateko hori urtero eguneratuko da, katastroko balioen eguneratzearen arabera).

Hala ere, laguntza eskatu ahal izango du etxebizitza baten jabe % 50ean baino gehiagoan denak baldin eta egiaztatzen badu ez daukala eskuragarri edo bere borondatearekin zerikusirik ez duen beste arrazoren batengatik ezin dela bertan bizi.

* Diru-sarrerei dagozkien gehienezko mugak hauek ez gainditzea.

28.000,00 euro garbi urtean, bizikidetzaren unitatea pertsona bakar batez osatuta baldin badago.

39.000,00 euro garbi urtean, bizikidetzaren unitatea bi pertsona edo gehiagoz osatuta baldin badago.

Alokairu-gastuei dagokionez gehienezko kopuru hau ezin izango da gainditu: hilean 850 €-koa.

Alokairu partekatua denean, onuradun bakoitzari emateko laguntza kalkulatzeko, etxebizitza osoaren hileko errenta zatituko da kontratuko titularren kopuruaren artean.

a) Bizikidetzaren unitatearen diru-sarreratzat joko diren kontzeptuak:

Bizikidetzaren unitatearen diru-sarrera gisa zenbatuko dira kideetako edozeinek ondoko kontzeptu hauengatik lortutakoak:

1. Lan-etekin garbiak, pentsio eta gizarte aurreikuspeneko prestazioak barne, horien araubidea edozein dela ere; aldi baterako edo biziarteko errentak, eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta.

Besteren kontura lanean diharduten langileen diru-sarreretatik datorren lan-etekin garbia honela kalkulatu da: eskatzailearen diru-sarrera gordinak ken Gizarte Segurantzari ordaindutako kotizazioen zenbatekoa eta eskubide pasibo eta derrigorrezko mutualitateengatik ordaindutako kopuruak.

2. Ekonomia jardueren etekinak.

Estimazio Objektiboaren edo Zuzeneko Estimazioaren zerga-araubideari atxikitako jardun enpresarialak eta profesionalak baldin badira, dagokion Jardueraren Eranskinean esleitutako Errendimendu Garbia zenbatuko da.

3. Kapital higiezinaren etekinak.

Bizikidetzaren unitateak higiezinak baditu diru-sarreratzat hartuko da horien katastro-balioaren % 2, honako higiezin hauena izan ezik: norbere konturako baliabideak eragiten dituen ustiapenerako erabiltzen direnak. Nolanahi ere, landa-ondasunak zein hiri-ondasunak alokatzeagatik, eskualdatzeagatik edo lagatzeagatik lortutako etekin guztiak zenbatuko dira.

4. Kapital higigarriaren etekinak.

5. Ondare irabazi eta galerak.

6. Ezkontideen arteko konpentsazio-pentsioak eta elikagaiengatik urtekoak.

— Bizikidetzaren unitateko kideek udal ogasunean zorrik ez izatea.

— Eskatzailea edo bizikidetzaren unitatea osatzen duten kideetako batek antzeko helburua duen beste dirulaguntzaren baten (administrazio honek edo besteren batek emana) onuraduna izan badaiteke, ezin izango du dirulaguntza hau jaso.

5. Abonar la renta mediante transferencia bancaria o documento bancario.

6. Ninguna de las personas solicitantes o las personas que conformen la unidad de convivencia tendrá vivienda en propiedad, salvo que sea cotitular de vivienda en propiedad obtenida mediante herencia o donación y que cuando el porcentaje de cotitularidad no supere el 50 %, el valor catastral de las participaciones no supere los 88.030,84 euros (se actualizará dicha cuantía todos los años, de conformidad con la actualización de los valores catastrales).

Sin embargo, podrá solicitar ayudas la persona propietaria de más del 50 % de una vivienda que pueda certificar la imposibilidad de utilizarla o la imposibilidad de residir en ella por razones que no sean atribuibles a su voluntad.

* No superar los siguientes límites máximos concernientes a los ingresos.

28.000,00 euros netos al año, cuando la unidad de convivencia sea de una sola persona.

39.000,00 euros netos al año, cuando la unidad de convivencia sea de dos personas o más.

En lo concerniente a los gastos de alquiler, no se podrá superar la siguiente cuantía máxima: 850 € al mes.

Cuando se comparta el alquiler, para calcular la ayuda a conceder a cada persona beneficiaria se dividirá la renta mensual de toda la vivienda por el número de personas titulares del contrato.

a) Conceptos considerados ingresos de la unidad de convivencia:

Como ingresos de la unidad de convivencia se computarán los obtenidos por cualquiera de sus miembros por los conceptos siguientes:

1. Rendimientos laborales netos, incluidas pensiones y prestaciones de previsión social, independientemente de su régimen; rentas temporales o vitalicias y Renta de Garantía de Ingresos.

El rendimiento laboral neto proveniente de los ingresos de personas trabajadoras por cuenta ajena se calculará como sigue: ingresos brutos de la persona solicitante menos cuantía de las cotizaciones a la Seguridad Social y las cuantías abonadas por derechos pasivos y mutualidades obligatorias.

2. Rendimientos de actividades económicas.

Si son actividades empresariales adscritas al régimen tributario de Estimación Objetiva o de Estimación Directa, se computará el Rendimiento Neto asignado en el anexo de la Actividad.

3. Rendimientos del capital inmueble.

Si la unidad de convivencia cuenta con inmuebles, se considerarán ingresos el 2 % de su valor catastral, con la salvedad de los inmuebles siguientes: los utilizados como explotación que genera recursos por cuenta propia. En cualquier caso, se computarán todos los rendimientos obtenidos por alquilar, transferir o ceder vienes rurales o bienes urbanos.

4. Rendimientos del capital mueble.

5. Ganancias y pérdidas patrimoniales.

6. Pensiones compensatorias y de manutención entre cónyuges, anuales.

— Los miembros de la unidad de convivencia carecerán de deudas en la hacienda municipal.

— Si la persona solicitante o cualquiera de los miembros de la unidad de convivencia puede ser beneficiaria de una subvención concedida (por esta administración o por cualquier otra) con un objeto similar, no podrá beneficiarse de la presente ayuda.

— Eskatzaileak edo bizikidetzaren unitatea osatzen duten kideetako batek antzeko helburua duen beste dirulaguntzaren baten (administrazio honek edo besteren batek emana) onuradun izateko eskubidea izanda ere, hura ukatu egin bazaio, betebeharrak ez betetzeagatik edota dokumentazio faltasua aurkezteagatik, ezin izango du dirulaguntza hau jaso.

Nolanahi ere, onuraduntzat jotzeko, egiaztatu beharko da ea Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluan eta 887/2006 Errege Dekretuaren 18. artikulutik 29.era bitartekoe-tan, Administrazio Publikoek ematen dituzten dirulaguntzen arauetan ezarritako baldintzak betetzen ote dituzten.

* Salbuespen egoerak.

Dirulaguntza eskatzeko aukera izango dute eskatzaile hauek:

— Adinari dagokion salbuespena:

18 urte beteta ez izan arren, beren kaxa bizi diren gazteak, bizikidetzaren unitate berria sortu dutenean, hain zuzen ere. Udaleko Zerbitzu Sozialek egiaztatu beharko dute egoera hori.

— Jabetzako etxebizitzarekin lotutako salbuespenak:

1. Bananduta edo dibortziatuta daudenean. Kasu horretan, epai judiziala eta hitzarmen arau-emalea aurkeztu beharko dira, etxebizitzaren erabilera beste ezkontideari eman zaiola egiaztatzeko.

2. Ohiko etxebizitzatik etxe-gabetu dituztenean. Kasu horretan, etxe-gabetze erabakia duen epaia aurkeztu beharko da.

3. Indarkeria matxistako edo familia barneko indarkeriako kasu bat denean. Udaleko Zerbitzu Sozialek egiaztatu beharko dute egoera hori.

4. Bere etxebizitza erabili ezin dutenean hondamendiren bat gertatu delako (uholdea, sutea, eta abar) edota suntsituta dagoela legez aitortu izan den kasuetan.

9. artikulua. *Etxebizitzek bete beharreko baldintzak.*

1. Diruz lagunduko den etxebizitza Astigarragako udalerrian egotea.

2. Etxebizitza Udal erroldan eta katastroan altan emanda egotea.

3. Etxebizitzak hirigintza onarpena izatea.

4. Nolanahi ere, etxebizitzak, gutxienez, honako bizigarritasun-baldintza hauek izan beharko ditu:

— Erabiltzen den sukaldea, behar bezala hornitutako elektrizitate- edo gas-iturriarekin.

— Bainugela dutzarekin edo bainuontziarekin.

— Ur beroaren sistema martxan, bainugelarako eta sukalderako zerbitzua duena.

— 220 voltetako instalazio elektrikoa, dagokion buletinarekin.

— Ur korrontea izatea.

— Saneamendua, sare orokorrera isurketak eginez.

— Kalerako aireztapena.

10. artikulua. *Baztertzeak.*

Ez dira onartuko kasu hauetan sartzen diren eskaerak:

1. Eraikin hori hirigintza-planeamenduan finkatuta ez badago edo haren aurreikuspenekin bat ez badator.

2. Urteko deialdian zehaztuko den gehienezko alokairu-gastua gainditzen duten etxebizitzak.

3. Urtebetekoa baino iraupen txikiagoa duten alokairu-kontratuak.

4. Logelen alokairuak.

5. Berralokairuak.

— Si la persona solicitante o cualquiera de los miembros de la unidad de convivencia puede ser beneficiaria de una subvención concedida (por esta administración o por cualquier otra) con un objeto similar y, sin embargo, le ha sido denegada por no cumplir con sus obligaciones o por presentar documentación falsa, no podrá beneficiarse de la presente ayuda.

En cualquier caso para poder ser beneficiaria deberá acreditarse el cumplimiento de los requisitos exigidos en el artículo 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, y en los artículos 18 a 29 del Real Decreto 887/2006 en torno a los requisitos de las subvenciones concedidas por las Administraciones Públicas.

* Supuestos de excepción.

Podrán solicitar ayudas las siguientes personas solicitantes:

— Excepción relativa a la edad:

Jóvenes menores de 18 años de edad que vivan por su cuenta, concretamente cuando hayan creado una unidad de convivencia nueva. Los Servicios Sociales municipales deberán acreditar dicha situación.

— Excepciones relativas a la vivienda en propiedad:

1. Cuando estén separadas o divorciadas. En ese caso, será necesario presentar la sentencia judicial y el acuerdo regulador, para certificar que se haya dado el uso de la vivienda al otro cónyuge.

2. Cuando hayan sido desahuciadas de la vivienda habitual. En ese caso, será necesario presentar la sentencia con la decisión de desahucio.

3. Cuando se dé un caso de violencia machista o intrafamiliar. Los Servicios Sociales municipales deberán acreditar dicha situación.

4. Cuando no sea posible utilizar la vivienda debido a un desastre (inundación, incendio, etc.) o en los casos en los que se haya reconocido su destrucción legalmente.

Artículo 9. *Requisitos que deben cumplir las viviendas.*

1. La vivienda subvencionada debe estar en el municipio de Astigarraga.

2. La vivienda debe estar dada de alta en el padrón y catastro municipales.

3. La vivienda debe contar con aprobación urbanística.

4. En cualquier caso, la vivienda deberá cumplir, como mínimo, las siguientes condiciones de habitabilidad:

— Cocina en uso, con la fuente de electricidad o gas pertinente.

— Baño con ducha o bañera.

— Sistema de agua caliente en marcha, que dé servicio al baño y a la cocina.

— Instalación eléctrica de 220 voltios, con el boletín correspondiente.

— Contar con agua corriente.

— Saneamiento, que vierta a la red general.

— Ventilación a la calle.

Artículo 10. *Exclusiones.*

No se aceptarán las solicitudes que incurran en los siguientes supuestos:

1. El edificio no está fijado en el planeamiento urbanístico o no coincide con sus previsiones.

2. Viviendas que superen el gasto de alquiler máximo definido en la convocatoria anual.

3. Contratos de alquiler cuya vigencia sea inferior a un año.

4. Alquileres de habitaciones.

5. Realquileres.

11. artikulua. Beste dirulaguntzekiko bateraezintasunak.

Oinarri hauen arabera emandako dirulaguntzak helburu berearekin ematen diren beste dirulaguntzekin bateraezinak izango dira (Emantzipa dirulaguntzarekin izan ezik):

– Gaztelagun Programaren alokairurako laguntzarekin.

Eusko Jaurlaritzak onartutako alokairurako laguntzen Gaztelagun programak lehentasuna izango du udal-laguntza honen aurretik. Eskatzaileak nahitaez eta udal-laguntzaren ebazpenaren aurretik izapidetu beharko du Gaztelagunen laguntza hori, eta ematen ez badu soilik izango du udal-laguntza hau jasotzeko eskubidea.

Gaztelagunen laguntza izapidetu beharra (<https://labur.eus/xaAJe>) salbuetsita geratuko da udal-laguntza kudeatzen duen organoak objektiboki erabakitzen badu eskatzaileak ez dituela inola ere beteko Eusko Jaurlaritzaren laguntzen oinarriak.

– Diru-Sarrera Bermatzeko Errenta (DSBE) eta administrazio publikoen gizarteratze-politikatik eratorritako beste edozein errentarekin.

– Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO) eta Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa (EPE) dirulaguntzekin.

– Gizarte-larrialdietarako laguntzekin (GLL), Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 44. artikulua (2.a) atalean aipatutako alokairu-gastuei loturik daudenekin.

Halaber, oinarri hauen arabera emandako dirulaguntza ezin izango da bateratu honako hauekin:

– Errentamenduko babes publikoko etxebizitza bat izatearekin.

– Errentamenduko etxebizitza pribatu bat izatearekin Merkatu Libreko Alokairurako Bitartekaritzako ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) programaren bidez edo Etxebizitza Hutsen Bizigune Programaren bidez.

III. KAPITULUA

PROZEDURA

12. artikulua. Dirulaguntzak emateko prozedura.

Oinarri hauetan aurreikusten diren diru laguntzak norgehiagokako prozedura bidez tramitatuko dira.

Esleipen-prozesuan eskariak aztertu eta esleitu dira.

Aurrekontu ahalmenaren baitan, Astigarragako Udalak aurrekontua handitu dezake, baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiak onartu ahal izateko. Horretarako, indarrean dagoen legeriaren arabera, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eta finantza-erabilgarritasuna hartuan hartuta, aurrekontu-aldaketa espedientearekin tramitatu beharko da. Aurrekontu-kreditua handitzearen ondorioz laguntzen hasierako zuzkidura handitzen bada ez da beharrezkoa izango deialdia berriro argitaratzea hura eraginkorra izateko.

13. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta modua.

Dokumentazioa: Eskaerak dirulaguntza honetarako prestatutako eskaera-orri normalizatuan aurkeztuko dira, behar bezala beteta. Eskaera-orri normalizatuak www.astigarraga.eus web-orrian eta udal erregistro bulegoan egongo dira eskuragarri.

Eskaerarekin batera, hurrengo artikuluan zehaztutako dokumentazioa aurkeztuko da.

Eskabideak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Ez dira epez kanpo egiten diren eskabideak onartuko.

Artículo 11. Incompatibilidades con otras subvenciones.

Las ayudas concedidas en virtud de las presentes bases son incompatibles con otras subvenciones concedidas con la misma finalidad (salvo las ayudas Emantzipa):

– Ayuda al alquiler del Programa Gaztelagun.

El programa Gaztelagun de ayudas al alquiler aprobado por el Gobierno Vasco tendría prioridad sobre la presente subvención municipal. La persona solicitante deberá tramitar dicha ayuda de Gaztelagun obligatoriamente, y con anterioridad a la resolución de la subvención municipal, y solo podrá acceder a la presente ayuda municipal si le ha sido denegada.

Quedará eximida de la obligación de tramitar la ayuda de Gaztelagun (<https://labur.eus/xaAJe>) si el órgano gestor de ayuda municipal decide objetivamente que no cumplirá, en modo alguno, las bases de las ayudas del Gobierno Vasco.

– Renta de Garantía de Ingresos (RGI) y demás rentas derivadas de las políticas de inclusión social de las administraciones públicas.

– Prestación Complementaria de Vivienda (PCV) y Prestación Económica de Vivienda (PEV).

– Ayudas de Emergencia Social (AES), ayudas relativas a los gastos de alquiler definidas en el apartado 2.a) del artículo 44 de la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social.

Asimismo, las ayudas concedidas en virtud de las presentes bases serán incompatibles con los siguientes supuestos:

– La vivienda es de protección pública, en régimen de alquiler.

– La vivienda es privada de alquiler, a través del Programa de Intermediación en el Mercado de Alquiler de Vivienda Libre ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) o del Programa Bizigune de Vivienda Vacía.

CAPÍTULO III

PROCEDIMIENTO

Artículo 12. Procedimiento de concesión de ayudas.

Se tramitarán las ayudas previstas en las presentes bases mediante concurrencia competitiva.

En el proceso de adjudicación se analizarán y adjudicarán las solicitudes.

Dentro de sus posibilidades presupuestarias, el Ayuntamiento de Astigarraga podría ampliar el presupuesto para poder aceptar todas las solicitudes que cumplan los requisitos. Al efecto, de conformidad con la legalidad vigente, considerando el Plan Estratégico de Subvenciones y la disponibilidad financiera, será necesario tramitar el correspondiente expediente de modificación presupuestaria. Si como consecuencia de la ampliación del crédito presupuestario se amplía la dotación inicial de las ayudas, no será necesario volver a publicar la convocatoria para hacerla eficaz.

Artículo 13. Plazo y modo de presentación de las solicitudes.

